Nafarroako Gobernuko, Ekonomia eta Enpresa Garapeneko Departamentuko Industria Antolamendu, Energia Azpiegitura eta Meategien Zerbitzuari:

, adinez nagusia, NAN zenbakia, eta jakinarazpenetarako helbidea kalean, herrian, posta kodean duena, erakunde honen aurrean agertzen naiz, eta zuzenbidean egokiena den bezala, honako hau **DIOT:**

2021eko abuztuaren 9ko NAOan jendaurreko informazioan eta alegazioak egiteko hurrengo proiektuak jarri direla: Sacyr Concesiones, S.L.U.k (1203-CE) sustatutako **"Navarra 1"** eta **"Navarra 2" parke Eolikoak** (1204-CE) eta Saresun Rosales, S.L.k sustatutako **"Navarra 4" parke Eolikoa** (1206-EE); eta idazki honen bidez, epean eta behar bezala **ALEGAZIO** hauek egiten ditut:

1. **200 metroko altuera duten 29 aerosorgailuek** (127,50 metroko dorrea + 145 metroko diametroa aspetan), 6 metroko zabalerako pistak eraikitzeak, 20 metroko diametroko hormigoizko zapatak eraikitzeak, goi-tentsioko lineak eta abarrek **biodibertsitatea izugarri galtzea** eta **eta paisaian eragin larria** dakarte**.**
2. Horrelako proiektuek ez dute biztanleria finkatzen; kontrakoa baizik, landa-eremuetako **despopulazio arriskua haunditu egiten da**, natura eta ingurunea baitira turismorako eta biztanleria bereganatzeko erakargarritasun nagusia**.**
3. **Floraren afektazioa**: karbono-hustutegi gisa jarduten duten eta **klima-aldaketa**ren aurrean funtsezkoak diren baso-eremu handien galera (46 hektarea). Nagusiki eragindako landaredia: koniferoak (basa-pinua) eta hostozabalak (pagoa eta haritza).
4. **Faunari eragitea**: proiektua **hegazti migratzaileak eta kiropteroak** (saguzarrak) igarotzen diren gune batean kokatzen da, eta oso kaltetuak izango liratekeen ugatza, miru gorria, sai zuria edo sai errea bezalako **espezie babestuak** ibiltzen dira bertan. Heriotzak, aerosorgailuen palakin talka egiteagatik; zaratak eragindako kalteak faunan.
5. **Ondare kultural eta historikoari eragitea**, hala nola, **Donejakue Bidea**ri edo **memoria historiko**ko leku den **Ezkabako ihesaldiaren GR-225** bidezidorrari.
6. **Pertsonen osasunean eragin larria**: **inpaktu akustiko handia** hurbileko populazioetan, zeinak osasun arazoak ekar ditzakeen, hala nola, estresa, loaren kalitatea galtzea, etab. **Argi kutsadura. Diskoteka efektua**.
7. **Inpaktu negatiboa enpleguan**: lehen sektorea (abeltzaintza estentsiboa) eta zerbitzuen sektorea (ostalaritza, landa turismoa) kaltetuak izango dira. Kultura zein natura ondarea kaltetzeak ingurunearen erakargarritasun turistikoaren balioa gutxitu egiten du, eta horrek enplegua suntsitzea ekarriko du.
8. Nafarroako Gobernuak eta Europak bultzatutako **Azpiegitura Berdearen Estrategiaren aurka doa**. Estrategia honek naturak dakartzan onurak edo "zerbitzu ekosistemikoak" balioesten ditu.
9. **Kontraesanean daude** Nazio Batuek bultzatutako **Garapen Jasangarrirako Helburuekin**, zehazki, honako hauekin: osasuna eta ongizatea (3); energia eskuragarria eta ez kutsatzailea (7); lan duina eta hazkunde ekonomikoa (8); desberdintasunak murriztea (10); lehorreko ekosistemen bizitza (15) …
10. **Kaltetutako bailaretako biztanleen borondatea** eta **toki-erakundeen autonomiaren errespetu eza**, zeinetako askok proiektu horien aurka egin baitute.
11. **Proiektuaren bidegabeko zatiketa**: mugakide diren Nafarroa 1 (48 MW), Nafarroa 2 (48 MW) eta Nafarroa 4 (45,7 MW) parke eolikoek, titulartasuna, ebakuazio-linea eta azpiestazio elektrikoa partekatzen dituzte eta parke bakarra osatzen dute, 50 MW-tik gorako potentzia elektrikoarekin (141,7 MW); beraz, Estatuko Administrazioan tramitatu beharko litzateke, eta ez Nafarroako Gobernuaren aurrean. Era berean, ingurumen inpaktuaren ebaluazioa ere bakarra izan beharko litzateke, eta ez azpiparke bakoitzarentzat.
12. **Proiektuen moratoria bat, eztabaida soziala sakona eta energía ereduaren plangintzaren beharra** dugu **Nafarroan**. Bertan, mahai gainean dauden makroproiektu eoliko eta fotoboltaikoen moratoria aldarrikatzen dugu eta Nafarroan energia berriztagarrien garapenari buruzko eztabaida soziala eskatzen dugu, trantsizio energetiko justu baten alde.
13. Bada makroproiektu hauen alternatiba bat, eta Nafarroako Gobernuari eskatzen diogu honen alde egin dezala: ingurumenean eragin handia duten proiektu zentralizatuen eta eskala handiko proiektuen aurrean, **proiektu txiki eta deszentralizatuak** (teilatuetan, etab.) modu erabakigarrian bultza ditzala eskatzen dugu. Azken finean, **energía kontsumitzen den tokian ekoiztea**, autokontsumoa, komunitate energetikoak,… Nafarroa energia eredu ekologikoa eta justua duen erkidego aintzindaria bilakatuz.

Honengatik guztiagatik, **ESKATZEN DUT**, aurkeztutako dokumentu hau onar dezala, eta, horrenbestez, aurkeztutzat jo ditzala aurreko alegazioak, egin beharreko izapideak egin ondoren, aipatutako proiektua baliogabetzea erabaki dezan. Eta, hedaduraz, eskatzen dut abian diren mota horretako proiektu guztiak geldiarazteko, eta Nafarroan behar dugun energía ereduari buruzko hausnarketa eta plangintza prozesu egoki bat irekitzeko.

n 2021eko irailaren (a)n.

Sinatua: